



Presentación

El colegio "San Jose de Floreaga Salestar Ikastetxea" es un centro católico gestionado por los Salesianos de Don Bosco y forma parte de Kristau Eskola. Los colegios salesianos tienen una larga trayectoria educativa en más de 140 países del mundo y cuentan con el reconocimiento mundial a su labor educativa.

Nuestra oferta abarca desde los 0 años hasta los 16 en modelo D. Somos una escuela popular, al servicio de la población de Azkoitia y su entorno. Está animada por la Comunidad Educativa de Floreaga.

Aurkezpena

San Jose de Floreaga Salestar Ikastetxea eskola katolikoa da, Salestarrek zuzendua eta Kristau Eskolaren barnean dago. Salestar ikastetxeek heziketa ibilbide luzea dute, munduko 140 baino nazio gehiagotan, eta beraien ekarpena mundu osoan ontzat hartzen da.

Gure heziketa eskaintza 0 urtetik 16ra zabalitzen da, D ereduan, euskaraz. Eskola herritarra gara eta Azkoitiko herriaren eta inguruaren zerbitzura gaude. Heziketa Komunitateak sustatzen du hezkuntza lana.

www.floreaga.com -943 853043 - floreaga@floreaga.com



Tlf 943 853043 - floreaga@floreaga.com
www.floreaga.com Izarraitz z/g AZKOITIA



JÓVENES
Y DESARROLLO
ONGD



Estilo educativo

1 criterio preventivo

por el cual hacemos propuestas de experiencias positivas de vida, les ayudamos a superar situaciones difíciles y a vivir sus aspiraciones.

2 ambiente educativo

caracterizado por el protagonismo de los destinatarios, el espíritu de familia, el trabajo diario, la invitación a la creatividad, el clima de alegría y fiesta.

3 relación educativa

favorece el encuentro personal con cada alumno y se traduce en capacidad de acogida, diálogo, confianza y simpatía hacia su mundo.

4 presencia animadora

de los educadores entre los jóvenes.

5 oferta de Fe

que se caracteriza por el encuentro con Dios en la vida diaria, la celebración de la fe, y las propuestas de compromiso cristiano.

Salestar heziera

1 prebentzio-irizpidea

horren bidez bizi-esperientzia positiboetarako proposamenak egiten ditugu, ikasleei egoera zailak gainditzeko eta euren asmoak bizitzeko laguntzen diegu.

2 hezkuntza-giroa

horren ezaugarriak hartzaileen protagonismoa, familiaren espiritua, eguneroko lana, sormena erabiltzeko gonbidapena eta alaitasun eta festa-giroa dira.

3 hezkuntza-harreman pertsonala

ikasle bakoitzarekin elkartzea eragiten du eta harremanarako gaitasuna, konfiantza eta bere munduarekiko begikotasuna dakartza.

4 presentzia-laguntza

gazteen artean hezitzaileen presentzia-laguntza.

5 fede-esperientziaren eskaintza

horren ezaugarriak eguneroko bizitzan Jainkoarekin elkartzea, fedearen ospatzea, eta kista-konpromisorako proposamenak egitea dira.





Eskaintza

Bigarren hezkuntza 14-15

Bigarren hezkuntza 12-13

Lehen hezkuntza 10-11

Lehen hezkuntza 8-9

Lehen hezkuntza 6-7

Haur hezkuntza 3-5

Haur eskola 0-2

Oferta

Normalakuntza

Euskara indartzea oinarritzkoa da gure eskolaren ikuspegian. Eskola euskalduna gara, berez, definitziz, eta euskal kulturaren alde aritzen gara: gure hizkuntz eredua D da. Euskal kultura suspertzen dugu: literatura, euskal dantzen taldea, bertso eskola, antzerki musikalak euskaraz...

Una apuesta decidida por el euskera y la normalización son señas de identidad de Floreaga Salestar Ikastetxea.



Agenda21

Eskolara Oinez



Eskolako Agenda 21 alorrean lan handia egiten dugu, kontzientzia ekologikoa piztuz eta sostengarritasun proposamen berriak sortuz. Eusko Jaurlaritzak "Eskola ekologikoa edo sostengarria" agiria eta bandera eman zizkigun iaz, gure lana aintzatetsiz.

"Eskolara oinez" egitasmoa sustatu dugu azken urtean, jende askoren laguntzaz. Ume eta gurasoak oinez etortzen dira eskolara, eta honek eragin ekologiko eta osasuntsua du.

La educación ecológica forma parte importante de las escuelas cristianas.

Solidaritate taldea

DBHko ikasleek Solidaritate Taldeko partaide izateko aukera dute. Talde honek "Gazteak eta Garapena" gobernuz kanpoko erakundearekin batera lan egiten du, Beningo kaleko umeen alde ditugun proiektu eta ekintzetan: janari bilketa, solidaritate pintxoak, ... Garrantzi handi ematen diogu solidaritatea lantzeari. Balore honetan hezitako gazteak mundua hobetzen saiatuko dira gero, dauden toki eta egoeran daudela ere.

El nuevo modelo de sociedad demanda personas solidarias capaces de trabajar en equipo.



Eskola 2.0

Informatika eta teknologia berriak indargune handia dira Floreaga Salestar Ikastetxean. Arbel digitalak klase guztietan, batz bestea ordenagailu bat hiru ikasle bakoitzeko, internet ikastetxe osoan, errepaso eta autoikaskuntzarako plataforma digitala, ikasle bakoitzarentzat email kontu pertsonala, "Educ@mos" plataforma digitala familien eta eskolaren arteko harremana errazteko, internetez ikaslearen jarraipen akademikoa egiteko, ... Eta, batez ere, tresna berri hauek erabiltzen dituen irakasteko metodologia berria.

La escuela del s. XXI pide un cambio en la manera de enseñar. Pasamos de la era analógica a la digital.

Ingelesa

Mundu globalizatu honek hizkuntzak lantzea eskatzen du. Gure eskolan amaitzean, gure ikasleek euskara eta gaztelania ondo menperatzeaz gain, ahalegintzen gara ingelesez ere ondo molda daitezen. Horretarako lanean eta prestakuntza jasotzen ari gara.

En este mundo globalizado se pide ser plurilingüe. Nosotros, aparte de conseguir que nuestros alumnos tengan un excelente nivel de euskera y castellano, caminamos para que, cuando terminen la ESO, puedan desenvolverse en inglés. Por eso estamos trabajando y formándonos para ello.

Alai Batza

Salestar eskoletan aisialdiko eskaintza erakargarria egoten da beti. Heziketa ez formala ere beharrezkoa da, heziketa erdizka gelditzea nahi ez badugu. Guk Alai Batza eskaintzen diegu Azkoitiko ume eta gaztetxo guztiei. Talde honen ekintzak LH4tik hasi eta unibertsitate garaira iristen dira. Asteburuetan giro eta ekintza bikainak eskaintzen dira. Boluntario izatea suspertzen du, laguntzaile guztiak boluntarioak dira. Aisialdiko salestar taldeek ospe handia dute mundu osoan. Alai Batza aitzindari eta liderra izan zen eta da orain azkoitiarren zerbitzuan.

La oferta de una obra salesiana se quedaría coja sin un ambiente de educación no formal. Alai Batza es una oferta de ello para todos los niños de Azkoitia.

Kantaldi - Jaialdia
AB gaua - Irteerak
kanpamentuak
Uztaila Jolasean
ADS taldeak
Antzerki musikala

www.alaibatza.com

